


Superbia



ARITZ GALARRAGA

Bada jende klase bat oso graziosoa zaidana. Graziosoa diot, ze azkenerako umorez hartu beharra duzu asuntoa, desesperatuko ez bazara. Jende klase hori da begietara begiratzen ez dizuna. Baina begietara begiratzen ez dizuna, ez adibidez lotsagatik, niri gertatzen zaidan bezala –barka inoiz halakorik egin badizut, irakurle maite–; baizik eta zuri begietara begiratzeari esfortzu handiegia delako haientzat, ez zarelako haiek zuri begietara begiratzeko bezain duin. Eta, aitortuko dut, urteekin gero eta okerrago daramat jendearen hantuste hori, zehatzago: ezin dut jasan euskaldun batzuek erakusten duten soberbia. Nire independentziaren aurreko jarrera epela ez ote den estatu propio batekin aipatu jarrera areagotuko litzatekeen ustearikiko proportzionala.

Jar dezagun adibide bat, goitik behera asmatutakoa –errealitatearekin izan dezakeen antzekotasun oro kasualitate hutsa da–: goizero, duela jada zenbait astetatik, leku berera joaten zara kafea hartzera –ebakia, deskafeinatua–. Ados, ez zara munduko tiporik atsegina, ez begiratzeko errazena. Baina, kontxo, kafe prestatzaile estimatua, zenbait aste iragan direla jada, begiratu arinki, laburzki bada ere begietara, otoi, besterik ez bada insistentziagatik. Bada, ez dago modurik, aizue. Eta pentsatu nahi dut kasu honetan ez duela harrokeriarekin zerikusirik, seguru gehiago dela lotsagatik –gogoratu adibide honek errealitatearekin izan dezakeen antzekotasun oro kasualitate hutsa dela; batez ere ez dudalako eguneroko kafea galdu nahi–. Baina orduan zergatik ematen dut buelta erdi, eta dena da poz, dena bozkario? Badakit euskaldunak garela, baina, kontxo, ez gaitzezen hermetikoki itxi, agian galtzen ari gara lotsatien arteko harreman ezin ederrago bat. Superbia zazpi bekatu nagusien arteko nagusia baita. Baina gero eta konbentzituago bainago benetan merezi dutenak pertsona apalak direla oso. ●



“NAFARROAKO GOBERNUARENTZAT, PAI DA BIZITZA GUZTIRAKO ZIGORRAREN PAREKOA”

STEILAS SINDIKATUA

UPNk Nafarroan abiarazitako eta hezkuntza eragile ugariaren kritikak jasotako PAI edo IIP Ingelesa Ikasteko Programa alboratzen lehena izan da Castejongo Dos de Mayo ikastetxea. Baina Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak adierazi du ez diola horretarako baimenik ematen. Nafarroako ikastetxe gehienetan PAI inposatu zutela eta orain irteteko aukera galarazi nahi dutela salatu du Steilas sindikatuak. Ikastetxeen erabakia eta autonomia errespetatzeko eskatu du: “Nafarroako Gobernuarentzat, PAI bizitza guztirako kartzela-zigorren parekoa da: sartzen zaituzte inoiz ez atera ahal izateko”. 2020/02/14

